


TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko otsaila • 312. alea



KORNER MOREA

Kuleroak buruan janzteko gertu

Mendiola
Industrialdea 13

BELAI  **TZ**

Tel.: 943 75 18 81
www.belaitz.com

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK

MARTXOAK 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

2016KO EGITARAJA



Martxoak 6, domeka

- "Yo soy Frida" (2007) dokumentalaren proiektzioa eta ondoren merienda-tertulia Korner Morearen eskutik. 19:00etan, Antzokian.
(Ant: Korner Morea)

Martxoak 8, asteartea, Plaza Barrixan

- Photocall "Feminista naiz" 18:00tatik aurrera
- Kontzentrazioa "Feminista naiz" lelopean. 19:00etan Ondoren "Poteo aldarrikatzaile feminista" Soraluzeko tabernetatik.
(Ant: Soraluzeko Emakumeen Topagunea, Udaleko Parekidetasun Batzordea eta Korner Morea)

Martxoak 12, zapatua

- Triki-poteoa "Mugi panderoa" taldearekin 13:00etan Plaza Barrixan.
- Herri bazkaria 14:30tan Txurrukan.
Ticketak: Arranon, Gaztetxean eta Iratxon.
Prezioa: 25€.
- Ondoren Flashmob feminista "Dibertitu nahi dugu"
(Ant: Korner Morea)

Martxoak 19, zapatua

- Helduentzako antzerki emanaldia, "DesEncadenArte".
Antzerki taldea: Plataforma Tirante eta Mugarik Gabe. 19:00etan, Antzokian.
(Ant: Udaleko Kultura Batzordea eta Soraluzeko Emakumeen Topagunea)

Apirilak 2, zapatua

- "Autodefentsa feminista" inguruko tailerra. 10:00tatik 14:00tara eta 15:00tatik 19:00tara Antzokian.
Dinamizatzailea: Emagin elkarte
*Izena emateko epea:
Martxoaren 31ra arte (Udal bulegoetan)
(Ant: Soraluzeko Emakumeen Topagunea eta Udaleko Parekidetasun Batzordea)

Maiatzaren 2tik 14ra

- "Arte feminista" erakusketa.
Inaugurazioa maiatzaren 6an, barixakua, arratsaldeko 19:00etan Kiroldegiko Erakusketa gelan.

Erakusketaren ordutegia:

- Astegunetan: 19:00tatik 20:30tara
- Larunbatetan: 12:00tatik 13:30tara.
- Korner Morearen eskutik



PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

943 75 13 04

Errabal 15, 1 - 27 P.K.
koordinazioa@pilpilean.com

Batzar nagusia

Martxoak 5, zapatua

10:00 - 12:00

Herriko antzokian

Sagardotegira irteera

12:30ean Estaziñoko geltokitik

Izena emateko 943 75 13 04ra deitu
edo idatzi koordinazioa@pilpilean.com
helbidera

Donostia 2016: hiru plazentziar zubian

“Zelan ikusten da kapitaletik bertatik Donostia 2016k dakarrena?”, Pil-pileanek, emaillez. Oso galdera jenerala zala, nik; gehienez be, nik neuk zer somatu dodan agertzia neukala. Izan be, ez nago egunero Europako kultura hiriburutza ospatzeko antolatatu daberen programazi-noari begira. Donostian bizi garan gehi- enen moduan. Nork bere zereginak ditu, eta hortik aurrera, bakoitzak bere erara jasotzen dau hau edo bestia.

Inaugurazino modura iragarri zebena, bai, haura in situ ikusi genduan. Zubiaren sinbolismoaz baliatu nahi izan zeben Maria Cristina zubian eskeinitako ikuski- zunion. Zubiaren sinboloa: desberdinen arteko topaleku; kontrarioak elkarrengana biltzeko gune. Polita kontzeptua. Eta gaurkotasun handikoa. Eguntan irudi hori erabili dabe, besteak beste, Sortuk eta Udalbiltzak: “zubiak eraikitzen” hasi beharra ei dago, “apurtutako zubiak berregiteko baldintzak daude”, eta abar.

Gu hurrengo zubian jarri gina, 300 edo 400 bat metrora, beste milaka eta milaka herri- tarrekin batera. Eta zer inpre- sino jaso genduan? Egonaldi deseroso harek –hotza, zutik egon behar, aurrekoen buruak traban...– merezi zebala ikusi eta entzun gendua bano zeozer hoberik. Han, urrin sa- marrian, ibaiaren alde batetik besteraino, kolorietako argiak elkarrekin konbinatzen, irudiak eratzen... Pobria pentsatu jatan: gaur egun, imajinarik so- fistikatuenak ikusten ohituta garenian,



Iñaki Iñurrieta

“Zubiaren sinboloa: desberdinen arteko topaleku; kontrarioak elkarrengana biltzeko gune. Polita kontzeptua. Eta gaurkotasun handikoa”



ordenagailuko salvapantallas arrunt bat ikusgarriagoa da haura bano. Eta soinu- bandari buruz, zer esan?, gaizki koordi- natuta zegoela irudiekin, gutxi entzuten zala, eta gutxiago aitzen... Telebistatik ikusi zenduenok, baleike inpresino hobia etaratzia, zubian benetan zer gertatu zan jakitea, ze guk ez genduan ezebe ikusi.

Kritika ugarien aurrin, ideia haura gau- zatziaren arduraduna, La Fura dels Baus antzerki-talde mitikoko katalan bat, kexu agertu zan, esanez hemen Kontxako postala besterik ez dakigula apreziatzen, proposamen estetiko ausartak eta arris- katuak ez ditugula onartzen, eta abar. Ai- txakia merkiak, kaskarkeria haura zuritze- ko. Neri Woody Allenen pelikula bat etorri jatan gogora: Take the Money and Run, hartu dirua eta hanka: horixe egin zeban harek, guri “tonto” eta “ezjakin” deitu eta gero.

Ikuskizuna amaitu eta segiduan, zer eta Asisekin eta Ramonekin tope, Donostiako diasporako beste bi plazentziarrekin. Haura kasualdadia: hirurok, bakoitzak bere aldetik, laugarren zubia aukeratu gau hartakoa ikuste- ko. Azkenian, zelabait, bete zan zubiaren sinbolismoa: han egin genduan tope aspaldi alkar ikusi barik egin eta gero.

Hirurok etara genduan konklusi- no bera: zubi kontuetan hasita, zela ez ziran akordatu plazen- tziarrokin, guk daukagun zubi flamantia eta famosua edukita; asmatuko gendua- la fundamentuzko zeozer. Eta askoz mer- kiago.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitate: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



Gutunak

Sabinen
Lagun Taldia

"Aupa Sabin!
Laster beteko da urtebete atxilotu zintzutela; 2015eko martxuaren 23an, Donapaleun (Baxe-Nafarroa). Bost urte lehenago egin zenduan alde herritik, eta atxilotu zintzutzen garaixan, bizitza publikua zeneraman. Euroagindua onartu arteko hilabetietan Paueko espetxian eduki zintzutzen preso, ekainian Espainiaratu arte. Egun, Valladolideko espetxian zauzkate, lau urte eta erdiko espetxe zigorra betetzen. Azken aste honek bereziki gogorak izan dira. Aittaren heriotza bakardade eta urruntasunetik bizi izan baitittuzu. Hileta elizkizunian egon zinan arren, ezzenduan etxekuekin bakarka egoteko aukerarik eduki. Zuretzat eta etxekuentzat besarkada haundi bana!"

Atxilotetaren urteurrena dala eta, MARTXUAREN 22xan ELKARRETARATZIA egingo dogu, Sabinen askatasuna eskatu eta espetxiekin amaitzeko. Hitzordua 19:00etan izango da, Plaza Barrixan.

SABIN ASKATU! ESPETXIAK APURTU!

Soraluzeko Jose Luis Mendizabal "Azalia"

Sare Ezustean alde egin zenuen gure ondotik eta beste leku askotan bezala, gurean ere, sekulako hutsunea laga duzu. Presoen eta iheslarien eskubideen aldeko lana ez da erraza, oraindik ere ezinikusi eta beldur asko dago gure artean eta sentiberatasun eta zabaltasun berezia duten pertsonak ezinbestekoak dira horiek gainditu ahal izateko. Horixe izan da, hain zuzen, zuk Soraluzeko SAREren bitartez egin duzun ekarpena.

Eredu hori gogoan hartuta jarraituko dugu lanean, zuk lan egin zenuen helburu berarekin: gizatasunaren eta guztiendako giza eskubideen alde. Beste inongo presok ez dezan gartzelan dagoela, aita galtzeko zoritxarrik izan.

Eskerrik asko Jose Luis!

Lan eskaintza

Plaentxi Herri Ikastetxeko jantokian begirale lanetan ordezkapenak egiteko pertsonak behar dira.

Euskaraz jakitea ezinbestekoa.

Kurrikuluma entregatzeko:

- Plaentxi Herri Ikastetxea
- rrrhausolan@ausolan.com
- 943 79 46 11 (luz. 217)

<p>Kiru Muntalak</p> <p>943 76 99 85</p> <p>kirumuntalak@yahoo.es</p> <p>www.kmdesign.es</p>	<p>Pol. Amilaga 5 BERGARA</p> <p>Tel. 943 76 99 85</p>	<p>■ Diseinu eta Fabrikazio lanak</p> <p>Sukaldeak</p> <p>Horma-armairuak</p> <p>Logelak</p> <p>Zoruak</p> <p>Ateak...</p>
		<p>■ Arotzeria lanak oro har</p> <p>■ Instalazioak</p>

Bittartetik



Elena
Perez

Calipso

Lehenengo begiratuan, CALIPSOK dantza-talde bat edo dirudi baina... ezta antzik ere. Ala bai? Ala metaforikoki bai? Ikus dezagun...

CALIPSO izenak "Café Literario Placencia-Soraluze" du jatorritzat, nahiz eta herritarrez gain ingurukoak ere batu. Idaztea eta irakurtzea maite dutenek osatutako taldea da. Hilean behin batzen gara beti atsegin egiten zaigun topaketaz gozatzeko. Gure bilera ibiltarietan, kafea eskutan, bakoitzak gomendatutako liburuez hitz egiten dugu, norbere uztako gauzatxoak irakurri edo bakoitzak momentuan egin nahi duen ekarpena komentatu, gaitik atera gabe, noski. Tentsioa gehitzearen, lehenengo egunean gure zuzendariak mahaigaineratu zuen ideia finko bat dabil gure gainetik hegaka (batzuetan hodei ilun moduan, beste batzuetan iparrizarraren eran): gure sorkuntza lanak batuko dituen liburuxka bat argitaratzeko lanean hastea. Ez dakit noiz lortuko duen Calipsok helburu hori baina momentuz gure zainetan txindurri mordo bat dabil.

Taldeko inork ez du literatura ogibide baina batzuk zale baino gehiago dira, han-hemenka literatur lehiaketetan hainbat sari lortutakoak. Batek edo bestek badu argitaratutako nobelarik. Bestebatzuek ez dugu hainbeste espero, baina taldeari eskerrak ematen dizkiogu hain ondo sentiarazten gaituen horrekin pixkanaka aberastuz joateko aukera ematearren. Horrelakoen zalea bazara eta gure CALIPSOren erritmorat dantzatu nahi baduzu, jarri harremanetan Angel Mario Fernandezekin, hijosdelcorralito@yahoo.es

“Herritarron presioak baino ez ditu mugiaraziko gobernuak”

Maidar Gabilondo (Soraluze, 1973)
Unicef Nafarroako koordinatzailea



Maidar Gabilondok 17 urte daramatza Unicefen lanean -Nazio Batuek umeei laguntzeko sortutako erakundea-, Nafarroako Batzordearen koordinatzailea da. Aurretik kooperante moduan jardun zuen, besteak beste, Dominikar Errepublikan eta Perun. Zientzia politikoetan lizentziaduna da eta Iruñean bizi da.

Azken hilabeteotan Unicefek baliabide asko bideratu ditu Siriatic datozen umeei laguntzeko eta Maidarrek hurbiletik eza gutzen du bertako egoera.

“Ailanen ostean 350 ume hil dira itota”

Zer ari da gertatzen une honetan errefuxiatuekin?

Hasieran, Siriatic ihesi zihozazen errefuxiatuak inguruko herrialdeetan hartu zituzten eta kanpamenduetan gero. Bost urte pasatu dira eta kanpamenduetako egoera hain da txarra, ezen jendeak Europarako bidetara heldu dion. Jendeak esperantza galdu du eta beren haurrei etorkizun bat eskaintzeko aukera bakarra Europara etortzea dela pentsatzen du. Bidaia oso gogorra da. Ibilaldi luzeak, elurra, haizea, tratu txarrak... Hasieran, gizonezko gazteak etortzen ziren baina, orain, emakumeak eta haurrak datoz.

Zela daude umeak?

Ailanen ostean 350 ume hil dira itota. Onartezina da Europako instituzioek eta jendarteak hartu dugun jarrera. Da-

goeneko 35.000 haur daude trantsitoko herrialdeetan eta momentuz, gobernuak kanpoko erakundeok dihardugu horren ardura hartzen.

“Denbora pasatu da eta jada inork ez ditu kuotak aitatzen”

Nazio Batuen Erakundeak Europar Batasunaren jokaera kritikatu du.

Nik orain arte pentsatzen nuen Europak Afrikako herrialde txiroenetara laguntzarik bideratzen ez bazuen, hein batean, urruntasunagatik zela, orain ikusi dut ezetz. Arazoa Europar bertan dago eta Europak ez du ezer egiten konpontzeko. Jada inork ez ditu kuotak ere aitatzen.

Eta hemengo herritarren mobilizazioaren inguruan zer diozu?

Kuriosoa da. Haitiko hondamendia edo Irakeko gerraren kasuan sekulako mobilizazioak izan ziren eta gobernuak behartu genituen neurriak hartzerantz. Horrelakorik ez dago orain. Beharbada izango da egoera konplexuagoa delako eta zailagoa delako bereiztea zein diren “zintzoak” eta zein “gaiztoak”, ez dakit.

Zein lan egiten du Unicefek errefuxiatuen alorrean?

Kanpaleku batean nengoela entzun nuen daukat gogoan: “gure zeregina laguntzea eta animatzea da, duintasunik gal ez dezaten”. Siria barruan ospitaleak eta oinarriko zerbitzuak kudeatzen ditugu, zailtasun handiekin. Haurrak mafiengandik

babesteko ere egiten dugu lan. Europar harrerarako zentruak eraiki ditugu, janaria banatzeko, familiak batzeko, umeak babesteko...

Zein baliabide dituzue?

Nafarroako komitean bi liberatu gaude eta 20 boluntario inguru. Nafarroan 5.000 bazkide ditugu eta urtean 1,7 milioi bideratzen ditugu Unicefera. Nafarroan bertan desnutrizio-egoeran dauden umeei laguntzeko lan egiten dugu, instituzioei presio eginez, batez ere.

“Gure zeregina laguntzea da, duintasunik gal ez dezaten”

Zuk zeuk zela bizi duzu egoera hau?

Krisia hasi zenetik murrizketak izan dira eta baliabide gutxiago daukagu. Oso gogorra da premia duten herrialdeei laguntza moztu beharra.

Etorkizuna zela ikusten duzu?

Optimista naiz. Elkarrizketak hasi dira eta badut itxaropena egoera bideratuko dutela. Errefuxiatu gehienek euren herrialdera bueltatzea nahi dute eta nik espero dut hori posible izatea. Dena den, herritarren presioak baino ez ditu mugiaraziko gobernuak.

Herritarrei zein mezu helaraziko zenieke?

Egoera bideratu bitartean, pertsona guzti horiei laguntzen jarraitu behar dugula, norberak ahal duen bidetik eta mobilizazioetan parte hartuz.

Jatearen plazera, bertatik bertara

Batzoki

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko kartak razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

Kontulan

a h o l k u l a r i t z a

Errenta atarpenak • Zerbitzu juridikoa • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen kontabilitate/iruzurzioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 13 - 1. ed. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

laz baino 37 langabe gutxiago herrian



Langabezia tasa zerbitzuen sektorean jaitsi da gehien.

Langabeziak behera egin du Soraluze eta Debabarrenean iazko urtarriletik. Orduan, langabezia-tasa %18,43koa izanzen, hauda, 335 langabezeuden; aurtengo urtarrilean, aldiz, tasa %16,39koa izan da eta 298 langabe daude. Debabarrenean ere, zertxobait gutxiago, baina

behera egin du langabeziak: %15,98ko tasatik %14,52ra jaitsi da.

LANGABEZIA DEBABARRENEAN 2016ko urtarrileko datuak

Eibar	2099 langabe (%16,79ko langabezia-tasa)
Soraluze	298 langabe (%16,39ko langabezia-tasa)
Elgoibar	694 langabe (%13,07ko langabezia-tasa)
Mendaro	109 langabe (%11,18ko langabezia-tasa)
Mutriku	266 langabe (%10,83ko langabezia-tasa)
Deba	262 langabe (%10,05ko langabezia-tasa)

FotoNotizia



Logroñoeko espetxeraino presoek eskubideen alde

Ezker Abertzaleak deituta, herriko 30 bat lagunek parte hartu zuten Logroñoeko espetxera *Euskal Herria abian, presoak etxera* lelopean egindako martxan. Elgoibartik, eibartik eta Debabarreneko beste herrietatik joan ziren beste 150 herritar inguru izan zituzten lagun. Trikitixa eta kantuz lagunduta, presoek Ezker Abertzaleak hasiko duen barne-prozesuan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatu eta presoak etxeratzea eskatu zuten.

Motzean

"Guraso berritsu" tailerra euskararen transmisioa lantzeko

Guraso berritsu tailerra 5-9 urteko bitarteko seme-alaben gurasoei zuzenduta dago eta euskararen ikasketa-prozesuan seme-alaben bide-lagun izan daitezkeela erakustea du helburu, beti ere, modu atsegin eta parte hartzailean. Hiru saio eskainiko dituzte, otsaila, martxoa eta apirileko hiru zapatutan. Lehenengo saioa bihar-zapatua-egingo dute antzokian, goizeko 10:30etik 12:30era bitartean. Guraso euskaldunek eta ez-euskaldunek parte hartu ahal izango dute. Tailerra Guraso euskalzaleen batzordeak antolatuta du. Taldea duela hila-bete batzuk sortu zen, gaztetxoek eta gurasoen artean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz.



Irure auzoko urak bideratzeko lanak martxan

Dagoeneko hasita daude Irure auzoko lanak, Larreategi bide-zubiaren parean, AP-1 errepidearen inguruko urak bideratzeko egingo direnak. Udalak jakinarazi duenez, proiektua BIDEGLK (Gipuzkoako Azpiegitura Agentziak) finantzatuko du eta 197.586€tako kostua izango du. Lanek bi hilabete eta erdiko iraupena izango dute. Menditik behera datozen urak eta Zabaleko errekatxoko urak kanalizatuko dituzte; horrela, azken urteotan urek sortu dituzten arazoak konpontzea espero dute.





**TXOKO
KAFETEGIA**

Kalebarreneko
kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

Enkarguak egiten dira

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
K.2. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



Domekan ekingo dio Ezker Abertzaleak eztabaida prozesuari

Soraluzeko Ezker Abertzaleak domeka goizean 10:00etan ekingo du antzokian ABIAN izeneko eztabaida prozesuaren lehen asanblada. Zutik Euskal Herria dokumentua adostu eta bost urtera, Ezker Abertzaleak hurrengo urteetarako bere estrategia politikoa egokitzeko barnehausnarketa prozesua jarri du martxan Euskal Herri osoan. Soraluzen, eztabaida prozesua hasi aurretiko bileretan 126 herritarrek parte hartu dutela jakinarazi dute. Dena den, Ezker Abertzaleak adierazi du "bere burua ezker abertzalekotzat jotzen duen edozein herritarrek" parte hartu ahal izango duela egingo diren hiru asanbladetan. Hurrengoak, martxoaren 19an eta apirilaren 16an egingo dituzte. Asanbladarik garrantzitsuena lehenengoa izango dela nabarmendu nahi izan dute, bertan bozkatuko delako aurkeztuko den proposamenaren egokitasuna.

Errigoraren bitartez olioa jatorrizko prezioan

Errigora ekimenak Nafar hegoaldeko olio saltzeko kanpaina jarri du martxan. Oliba-olio birjina da salgai jarri dutena, bost litroko garrafetan eta ekoizlearen jatorrizko prezioan, 32 euroan ekologikoa eta 22,5 euroan konbentzionala. Martxoaren 2ra bitartean egin daitezke eskaerak 645 73 68 34 (Onintza) telefonora deituta edo errigora.eus webgunearen bitartez. Errigora ekimenak Nafarroa hegoaldeko ekoizleei eta bertako euskalgintzako ekimenei laguntzea du helburua. Soraluzen banaketa martxoaren 17an egingo da.



Udalak 47.000 euro gehiago ordainduko ditu zaborrengatik

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zaborrengatik mankomunitateei kobratzen dien kuota igotzea erabaki du eta Debabarreneko udalak %10-15 bitarteko igoera izango dute bigarren hiru hilabetek aurrera. Ondorioz, Soraluzeko Udalak iaz baino 47.000 euro gehiago ordaindu beharko dizkio Debabarreneko Mankomunitateari. Udalak, herritarrei zergak igo ordez, 2016ko aurrekontu-etatik bideratuko du ordainketa.

Mankomunitatean hainbat iritzi

Arcadio Benitez Debabarreneko Mankomunitateko presidentek aurreko legegintzaldian EHBilduk errauskailuaren lanak gelditu izanari egotzi dio igoeraren errua, erabaki horrek "sortutako zorrak" ordaintzeko "diru-sarrerak handitu beharra" zegoela argudiatu du. Unai Larreategik, Soraluzeko Udalak mankomunitatean duen ordezkariak, gezurtatu egin du argudio hori: "errauskailuaren obra abian egongo balitz ordaindu beharrekoa gehiago igoko litzateke. Igoera ekarri duena ez da errauskailua ez egitea, errauskailuaren proiektuak berak dakar, modu batean edo bestean, zigorra".

Bestalde, Zero Zabor taldeak salatu du gaikako bilketagatik ezartzen ziren ho-



Ezozibideko konpostagunea.

bariak ia desagertu egin direla. Bestalde, tasei dagokienez, errefusarenak %11 igo dituzte eta organikoari dagozkionak %44 eta %88 artean. Talde ekologistak salatu duenez, neurri horiekin gaikako bilketa eta konpostatzeko ahalegina zigorren ari dira.

Soraluze bailarako batz bestekotik behera

Mankomunitateak argitaratu berri dituen datuen arabera, Debabarrena da Gipuzkoa osoan gaikako bilketan gutxien batzen duen eskualdea: %39,66 batz beste. Soraluze, berriz, bailarako batz bestekoaren azpitik dago %37,19 batzen du.

Kriseilu hegalarrien ekimena martxoaren 12an

Martxoaren 12an egingo da joan abenduan sute-arriskua zela-eta atzeratu zen kriseilu hegalarrien ekimena. "Piztu erabakia" lemapean, Soraluzeko Gure esku dagok "fase erabakitzailean" sartzera doan uanean herritar mugimendua indartu nahi du berriz Soraluzen. Ekitaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da Zubi Nagusian eta herriko hainbat musikari

eta abesbatzako hainbat kidek girotuko dute. Ekimenean parte hartzeko behar diren kriseiluak barixaku iluntzetan Kontzejupean edo Iratxo goxo-dendan eskuratu ahal dira. Bestalde, Gure esku dagok mugimenduko bazkide egiteko aukera ere eskaintzen jarraituko du datozen asteotan.



KORNER MOREA

“Indarkerien aurkako kolektibo feminista gara”

Korner Morea iazko urrian sortu zuten, Emakumeen Mundu Martxaren ingurumarian. 16-33 urte bitarteko dozena bat lagunek osatzen dute. Ez da emakume-taldea, indarkerien aurkako kolektibo feminista da.



Martxoko ekimenerako prestatzen.

ARGAZKIAK ETA TESTUA EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Zer iradoki nahi duzue Korner Morea izenarekin?

Taldeko asko futbolariak gara eta hortik dator izena. Zelaiaren ertzetik golak sartzearen ideia gustatu zitzaigun, batez ere, golak sartzearena (barreak). Eta morea jarri diogu emakumearen kolorea delako.

“Indarkerien aurkako kolektibo” moduan definitu duzue zuen taldea?

Bai, ez gara emakume-taldea, feministak gara. Batzuetan feminista emakumearekin bakarrik lotzen da baina gure kasuan ez dugu hala izaterik nahi. Gure taldean neskak, mutilak eta batez ere, beste-lakoak nahi ditugu. Emakumeok eta LGTB (lesbiana, gay, transexual, bisexual)

garenok etsai bera dugu: zer maitatu behar dugun eta zelakoak izan behar garen inposatzen digutenak.

“Artea eta kultura arma moduan erabiltzen ditugu”

Emakumeen Topagunea eta berdintasunerako udal-teknikaria badaude, zergatik sortu duzue Korner Morea?

Gure burua gehiago kokatzen dugu kalean, jendearekin harreman zuzena izateko. Argi dugu aurrerapauso bat dela gaur egun feminismo instituzionalak indarra eta presentzia izatea. Hala ere, horrek bere mugak dauzka eta ez da toki guztietara heltzen. Dena den, osa-

garriak izan litezke eta une honetan hala da, elkarri laguntzen diogu. Guk hutsune bat ikusi genuen, batez ere, feminis- motik jende gaztearengana heltzeko eta hutsune hori estaltzen ahalegindu gara.

Lehenago ere izan dira herrian talde feministak eta LGTB mugimenduaren aldeko taldeak. Baina urte batzuk lanean jardun ondoren desegin dira...

Inplikazio handia eskatzen duen mugimendua da eta talde eragilean dauden indarrak jaisten baldin badira, desagertzeko arriskua dago. Sentsazioa da beti paretaren kontra jotzearena. Lehenago izan diren taldeak desagertu ziren, baina pertsona horiek hor jarraitu dute, lanean

eta militatzen. Gure bokazioa da feminista izatea, eta beti izango gara. Beste kontu bat da une bakoitzean mugimenduak zer forma hartzen duen.

90eko hamarkadan emakume-taldean jardun zutenekin topaketak egin zenituzten. Zer ikasi duzue haiengandik?

Segurtasuna ematen du, indarra. Eurak ilusio handiz bizi dute feminismoa eta hori transmititu egiten da. Bi ahizparen arteko konplizitateari "sorodiditatea" esaten zaio eta guk horixe sentitu genuen topaketan. Oraingoa baino giro erasokorragoan jardun behar izan zuten eta mila bizipen kontatu zizkiguten. Gومندio bat ere eman ziguten: "zaindu zuen burua".

"Gure jarrera beti izango da laguntzekoa baina salatu behar baldin bada salatu ere egingo dugu"

Aldarrikapena kultur sorkuntzarekin eta irudimenarekin uztartu dituzue. Zergatik?

Gure izaerarekin bat datorrelako. Gure artean asko gaude idazten, marrazten, musika jotzen... hasita. Oraindik ere ez dugu publikora azaltzeko lotsa kentzerik lortu baina... *Mantazpitik* errezitaldi musika-

tua egin genuen eta martxoan hiru saio egingo ditugu kanpoan.

Artea, kultura, musika arma moduan erabiltzen ditugu. Hori da guknahi duguna, egiten duguna jendearentzako erakar-garri izatea.

"Badira ikusten ez diren indarkeriak, sutilagoak, egunero gertatzen direnak. Adibidez, tabernan kontua gizonari ematea..."

Korner Moreak zein esparrutan eragin nahi du?

Zeharka denean, baina, batez ere, gazteengan ikusten da interesa, baina gero ez dute pausorik ematen mugimendura. Oso garrantzitsua da belaunaldi gazteak mugimendura erakartzea.

Gainerakoan, herrian ondo egiten diren gauzak aitortu eta hain ondo egiten ez direnak salatzea ere bada gure zeregina. Badago, adibidez, aisialdi-talde bat genero ikuspegia zaintzeko ahalegina egiten duena eta beste bat egiten ez duena. Gure jarrera beti izango da laguntzekoa baina salatu behar baldin bada salatu ere egingo dugu.

JARRAITZEN DU ►

Herriaren erradiografia

HOBETZEKOAK

- Udaletxeko berdintasun teknikariaren dedikazioa baxua da, astean 8 ordukoa da.
- Emakumearen txokorik ez dago, elkartzeko gune moduan erabiltzeko.
- Sorako nesken taldea desagertu zen eta kirolean erreferentzia falta somatzen da.
- Zenbait aisialdi talderen jarrera desagokoa da hezkidetzari dagokionez.
- Beldur barik sormen-lehiaketa bertan behera gelditu da.

POSITIBOAK

- Jendea indarkeria matxista salatzea ateratzen da.
- Hezkuntza formalean eta ez-formalean hezkidetzaz gero eta barneratuago.
- Komunikabideetan (Berria, Argia) ikuspegi feminista lantzen da, Pilepileanen igartzen hasi da.
- Udaletxeko Berdintasun Plana eguneratu izana.
- Korner Morearen sorrera.

"MARTXOA GUREA DA!" EGITARAUAZ

"Hilabete osorako egitaraua antolatu dugu, pentsatzen dugulako, komenigarria dela egun bakarretik haratago aldarrikapena lantzeko eta bisibilizatzeko denbora tarte zabalago bat hartzea. Hainbat modutara landuko dugu borroka hori eta pertsona libre moduan enpoderatzeko baliatuko dugu."

Kuleroak buruan jartzearen ideia

"90eko hamarkadako Emakume taldekoek kontatu ziguten bazela taldeki-de bat afarien ostean kuleroak buruan jantzita ateratzen zena eta pentsatu genuen omenalditxo bat egitea modu ludiko batean. Errebindikazioa da, gure izaera barrutik kanpora ateratzearena."

"Mantazpitik" ikuskizunarekin tourra

Mantazpitik errezitaldia heritik aterako dute martxoan eta hiru emanaldi egingo dituzte inguruko herrietan: martxoaren 5ean, Aramaion; 11n Mutrikuko Gaztetxean; eta 18an Eibarko Portalean, "Nalua" Eibarko gazte feministen taldearen aurkezpenean.



Egitaraua aurkezteko egindako agerraldiko irudia

Parekidetasunari dagokionez, batzuek diote azken urteotan asko aurreratu dela eta beste batzuek atzeraka goazela.

Alde batetik, optimista gara, aurrera egin dugu; baina ez nahi beste. Bikote harremanetan esaterako, jokabide menperatzaileak birsortzen ditugu, baita geuk ere. Baina garaipen bat da, gure ustez, eraso bat gertatzen denean 50 lagun batzea hori salatzeko.

Dena den, moskeatzekoa da feminismo soziala inbisibilizatu nahi izatea eta hori instituzioek, komunikabideek eta arduradun politikoez egiten dute.

Bestalde "feminista" berbarekin bada go zerbait mesfidantza sortzen duena. Ezaugarri txarrakegotzen zaizkio. Gauza batzuk esatearren "erradikaltzat" hartzen zaituzte, eta askotan erresistentzia gune nagusia familia izaten da. Horregatik hasten da iraultza etxetik.

Feministak eta LGTB direnak onartzeko orduan aurrerapenak eman dira; hala ere, badago errekonozimendu faltsu bat ere, mugimendu hau moda moduan ikusten duena: "bueno, lagatzen dizuegu ezkontzen ezta? Bada, listo! Eman bakea".

Hilketak eta tratu txar fisikoak gaitzes-ten dira, baina, beharbada, beste maila bateko indarkeria mailak ez. Zer da mikromatxismoa?

Badira ikusten ez diren indarkeriak, sutila- goak, egunero gertatzen direnak. Adibidez, tabernan kontua gizonari ematea... Guk geuk erreproduzitzen ditugu horrelakoak, jaso dugun hezkuntzak automatikoki horretara bultzatzen gaituelako. Mikromatxismoa esaten zaio, baina benetan makromatxismoa da. Betaurreko moreak jantzitakoan ikusten duzu matxismoa etengabe erreproduzitzen dela. Emakumeok gizonen eroso sentiarazteko gaudela. Hori LGTB bikoteetan ere erreproduzitzen da.

Belaunaldi gazteen jokaera matxista eta homofoboak aipatzen dira askotan eta galdera egiten da: "baina zer dihardugu egiten gaizki?"

Gazteek helduen jokabideak erreproduzitzen dituzte. Har dezagun telebista



Mantazpitik ikuskizuna Gaztetxean.

esaterako, zer rol ematen zaie homosexuali edo emakumeei? Transmititzen den ideia da emakumeak ahulak direla eta beti behar duela gizonen laguntza. Hain da makinaria potentea, ezen gure aukera bakarria zirrikituak bilatzea den, ezinezkoa da dena batera botatzea.

Herritarrei zein mezu helarazi nahiko zeniekete?

Gure mezua, batez ere, indarkeria erabiltzen dutenei bideratutakoa da, inpo-

satzaileei, eurak direlako aldatu behar dutenak.

Bestalde, gizon-emakume, hetero-gay binomio horiek hautsi behar ditugu, badirelako horietatik aparteko izaera dutenak eta denok garelako pertsonak. Taldea zabalik dago, eta ez bakarrik emakumeendako, baizik eta laguntza eman edo jaso nahi duen guztiarendako. Desiatzen gaude taldekide berriak egiteko.

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 06





PLAENTXIA.EUS

Webgune komunitarioa

Urte berriarekin batera estreinatu dugu webgune berria: txukunagoa, erabilterrezagoa eta, batez ere, bizkorragoa. Tokikomek, euskarazko tokiko komunikabideen bateraguneak, tokiko hedabideendako bereziki atondutako plataforma da ezarri duguna. Aurre-rantzean, talde indartsu bateko kide izango gara, etengabe berritzeko gaitasuna izango duena eta gure erabiltzaileen premiei aurre hartzeko gai izango dena. Internet eta mundu digitala aurrera doaz, sekulako abailan, eta etengabe berri beharra dago sortzen zaizkigun premia berriei erantzun ahal izateko.

Aurten 9 urte beteko ditu herriko euskarazko webguneak eta pixkanaka ezinbesteko komunikabide bihurtuz doa soraluzetarren egunerokoa. Webgunearen ezaugarri garrantzitsuena komunitatea da: herriko talde eta erakundeek osatzen dutena. Gaur egun, 30 taldek baino gehiagok dute bloga eta komunitateko kide horiek



Plaentxia.eus-en komunitateko zenbait kide, otsailaren 18an egin genuen aurkezpenaren ostean.

ezinbesteko lana egiten dute, egun erdiko liberazioz diharduten bi kazetariekin batera -Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate-. Beraz, komunitatea aberas-

tea izango da etorkizuneko erronka nagusienetakoa, Plaentxia.eus webgunea askoren artean egina eta askorentzat izan dadin.

Komunitateko kideak




**Txaro
Lete**
Itxaropena
elkartea

Ni arduratu izan naiz elkarteko informazioa emateaz eta erreleboa Luis Feliperi pasatuko diot laster. Normalean, elkar-teak antolatzen dituen irteera, txapelketa eta batzarraren berri eman izan dugu agendan. Plaentxia.eus oso ondo dago herriko kontuez enteratzeko.



**Gorka
Zubiaurre**
Soraluze FT eta
Hiru Txirilo

Argazkiak atera eta sailkapenaren berri ematen dut. Ohitura hartzea da. Horrela, Plaentxia.eus-en bitartez informazioa jende askorengana heltzen da. Esaterako, boletako jarduna ez da oso eza-guna eta webguneak ezagutarazteko aukera ematen digu.



**Alana
Berraondo**
Korner
Morea

Baliabide ona da, gure ekintzak eta jakinarazpenak helarazteko eta herritarren artean zabaltzeko. Azken orduko albisteak bizkor argitaratzeko aukera ematen digu eta hori abantaila handia da. Eragileak bertan agertzea eta indarra hartzea oso aberasgarria iruditzen zaigu.



“Etorkizuna euskaraz eta euskaratik eraikitzen ari gara”
Urko Aristi
Tokikom-eko presidentea

Tokikom euskarazko tokiko 26 hedabide batzen dituen elkartea da eta Urko Aristi kazetari ezaguna da presidentea.

Modernoia, punta-puntakoa, erabiltzen erraza eta dotorea izateaz gain, gure

agerkariaren egitura, agregatzailea da. Tokikomen gainerako agerkariekin elkartrukea errazten duela, alegia. Komunitatearen funtsa hori da: hartu eta eman. Hori egiten du Tokikomek komunitate guzti horien komunitatea egituratu, hori da bidea: guztiak elkartu, garai berrietara egokitu eta etorkizuna ere euskaratik eta euskaraz eraiki. Baita plaentxia.eus-en ere! Zorionak beraz, ederki ari zarete eta! Bejondeizuela!



Zerbitzu eta eduki berriak


Webgune berriak aurrekoak ez zituen atal eta funtzio berriak eskaintzen ditu: inkestak eta lehiaketak egiteko aukera; audioak jasotzekoa; zorion agur, eskela eta iragarki laburrak zuzenean bideratzekoa; eguraldiaren iragarpena egitea; komertzioen gida eskuragarri jartzea...

Bestalde, erregistratutako parte hartzeari dagokionez, bi maila bereiz ditzakegu: bata "erabiltzaile" mailakoa, komentarioak egiteko aukera eskaintzen duena; bestea, kide mailakoa, bloga izateko aukera ematen duena.

"Kide" direnen artean, berriz, hiru multzo bereizten dira: lehen multzoan "taldeak" daude, bertan talde zein erakundeendako blogak batzen dira; bigarren multzoan "sinadurak" daude, eta horiek norbanakoei lotuta daude; eta hirugarrenean, aldiz, "kolaboratzaileak" ditugu, hau da, aldizkarian kolaboratzen dutenak. Lehenengo multzoa da gaur egun aktibatuta dagoen bakarra. Datoren hilabeteetan gainerakoak ere martxan jartzea da asmoa, webgunean iritzi eta informazio aniztasuna hazten joan dadin.

Agenda bateratua eta gida

Herriko agenda bateratua bideratzea da webgunea dagoeneko eskaintzen ari den zerbitzu garrantzitsuenetako bat. Dagoeneko kide diren talde guztiak dute aukera webguneko agendan euren hitzorduen berri zuzenean emateko. Gainera, urte osoko egutegia osatzeko



aukera eskaintzen du tresnak. Etorkizunean helburua izango da plaentzia.eus-eko agenda, euskarazkoa, herriko agendarik osatuena eta erreferentzialena bihurtzea. Horretarako, ohiko bi-


dea erabiltzaileek jaso dezaketen informazioarekin batera, ezinbestekoa izango da kideen parte hartzea helburu hori lortzeko.

Bisitari kopurua gora

2016ko lehenengo bi hilabeteetan Plaentzia.eus-en bisitari kopuruak gorantz jarraitu du. 2014an Plaentzia.com-ek 34.000 bisita izan zituen eta 2015ean Plaentzia.eus-ek 77.000 izan ditu. Otsailean, batz bestea, webguneak 400 bisitatik gora izan ditu egunero eta, lehen aldiz, hilabeteetan 10.000 bisitako langa gainditu du. Lehen bi hilabeteetan webgunera egindako bisiten artean, erdia baino gehiago mu-

gikorraren bitartez egindakoak izan dira (%60a). Hortaz, gure helburua zera izango da, ondorengo hilabeteetan ere bisitari kopurua hazten jarraitzea. Horretarako, aktualitateari jarraipen estua egiten eta ikusentzunezkoak lantzen segiko dugu, eta blog-komunitateko kideen kopurua gehitzeko ahalegina ere egingo dugu, "Sinadurak" izeneko norbanakoen blogak sortzeko aukera eskainiz.

Bisitak



2015eko otsailetik aurtengo otsailera bitarteko bisita kopuruekin osatutako grafikoa. Iturria: google-analytics

Albisterik ikusienak

2015ean Plaentzia.eus-en interesik handiena piztu duten albisteak honakoak izan dira:

1. Iñigo Errejonen bisita
2. Ibai Kortabarria zezenak harrapatu zueneko
3. Mikel Hernandezen apustua
4. Lurdes Txurruka kaleratzea
5. 19. Korrika
6. Sabin Mendizabalen atxiloketa
7. Auto istripua Ansolan
8. Zeletako etxeko sutea
9. Aratosteetako argazkiak
10. Marihuana haztegia Sagarrerrekan

SORALUZE.EUS

Eduki eta zerbitzu gehiago

Udalaren webgune berria martxan dago abendutik. Diseinua ez ezik, azpiegitura teknikoa eta edukia ere erabat berriak dira. Eibarko Code Syntax informatika-etxeak egindako webgunea da eta 5.000 euroko kostua izan du.

Webgune berriak zaharrak eskaintzen ez zituen hainbat zerbitzu berri eskaintzen ditu. Nagusiak hauek dira:

- **Agenda:** udaletxeak antolatutako ekimenen berri ematearekin batera hilero paperean argitaratzen den agendarako batzen diren ekimenen berri emango du. Astero egunera-tuko da.
- **Albistegia:** udaletxeko jardunaren inguruko informazioa emango du. Egunero berrituko dute.
- **Tramiteak on-line:** ordainketak, azpiegitura-eskaerak (antzokia, erakusketa gela, haimak...), errolda-ziurtagiria, hirigintzako tramiteak eta beste hainbat tramite bideratzeko aukera ematen du.

Udalaren jardunaren eta zerbitzuen inguruko informazio guztia eguneratu da eta baita herriaren inguruko kontu batzuk ere. Horrekin batera, udaletxe-



Webgunea elikatzeko arduraren duten udal-teknikariak.

ko zenbait informazioen berri ematen duen "Gardentasuna" edo "Alkateari idatzi" moduko atalak sortu dira. Alkarre-

kin.eus webgunean zegoen edukia ere udalaren webgunean integratuta dago gaur egun. Azkartasuna eta mugikorretatik kontsultatzeko prestatua egotea dira Soraluze.eus berriak eskaintzen dituen bestelako abantailak.

Komunikazioa udal-langileen eta alkatearen ardurapean

Arlo bakoitzeko udal-langilea izango da webgunera informazioa jasotzeko arduraren izango duena. Komunikazio orokorraren arduraren berriz alkateak hartu du bere gain. Aurreko legegaldian komunikaziorako teknikari bat kontratatu bazen ere, udal-gobernu berriak inolako kontratazio berririk egin gabe komunikazioaren arduraren bere gain hartzea erabaki du, aurtengo aurrekontuan horretarako bideratzeko baliabide nahikorik ez dagoela argudiatuta. Ondorioz, aurreko legegaldian Alkarrekin prozesuaren inguruko komunikazioa bideratzeko martxan jarritako tresnak – webgunea eta aplikazioa – eguneratu barik daude. Hala ere, udalak dio etorkizunean komunikazio tresna horiek berreskuratzeko asmoa duela.



Soraluzeko entziklopedia digitala

Soraluzeren inguruko informazio digitala jaso, sailkatu eta erraz kontsultatzeko moduan aurkeztea da Sorapedia.eus webgunearen helburua.

Wikipediaren -mundu mailako interneteko entziklopedia digitalaren- aldaera autonomoa osatzea erabaki dute, herri mailakoa: "webgune independentea izateak informazioa jasotzeko arau zabalagoak izateko aukera emango digu, baina gureak ere tresna komunitarioa izateko bokazioa du, eta, zela ez, osagarria izango da wikipediarekin".

Herri-identitatearen taldea

Sorapedia sortzearen ideia iaz sortu zen, Alkarrekin prozesuaren barruan eratu zen Herri-identitatea taldearen barruan. Talde horretan Soraluze eta soraluzetarren identitatearen inguruan interesa duten hainbat herritar batu dira, historiazetasuna dutenak denak, eta eurak dira hilabeteotan proiektua garatzeko lanean dihardutenak.

Webgunea martxan

Dagoeneko webgunea martxan dago eta hainbat dokumentu jaso dituzte:

- **Liburuak (21):** Zirikadak eta Eztenkadak, Colon Vizcaino...
- **Mapak (26):** XVII. Mendetik hasita Soraluzeren aipamena egiten duten mapak.



Sorapedia.eus webgunea. "Ba al zenekien?" atalean herritarrei interesgarri gerta dakizkien kontuak azalduko dituzte.

- **Aipamenak (32):** Soraluzeren aipamena egiten duten frantsesezko, espainierazko eta italierazko argitalpen zaharrak.
- **Ikusentzunezkoak:** Erregetxeko erai-naren errekreazio birtuala jasotzen

duen bideoa eta Indalecio Ojanguren argazki zaharrak, esaterako.

- **Baserriak (95):** herriko baserri guztien informazioa fitxetan jasotzen dihardute.

Herritar talde zabala behar

Beste dokumentu asko ere ikusgai daude baina Sorapediak atal asko ditu: geografia, historia, pertsona ezagunak, kultura, turismoa... eta material asko dago oraindik jasotzeko. Horretarako, ezinbestekoa da Sorapedia elikatuko duen herritar-talde zabala batzea proiektuaren inguruan eta talde eragilekoek etorkizunean horretantxe ahalegintzeko asmoa dute, hain zuzen ere: "proiektuaren berri eman eta ahalegina egingo dugu ahalik eta jende gehienak egitasmoan parte har dezan".

Sorapedia.eus-en ekarpenak egiteko aukera badago dagoeneko. Informazioa zela jaso erakusten duen jarraibide-orria eskuragarri dago webgunean bertan. Sorapediak hainbat hizkuntzatan informazioa jasotzeko aukera eskainiko du eta euskara izango da lehentasunezko hizkuntza.



Herri-identitatea taldeko kide batzuk.

Motzean

Neskak igoera fasean Mutrikurekin

Soraluzetarrak *Liga Vasca* maila lortzeko igoera-fasea jokatzen ari dira Mutrikuko taldearekin. Azken jardunaldian 1-4 irabazi zioten Eibar taldeari eta Alanak hiru gol egin zituen. 6.enak dira sailkapenean eta hurrengo partida Urrietaren kontra jokatuko dute Mutrikun.



Gallas eta Heriz final-erdietan

Soraluzeko bikotea *Udaberri* palatxapelketako final-erdietarako sailkatu dira Altzatarra taldeari 25-17 irabazi ostean. Soraluzetarrek ez dute partidarik galdu txapelketan. Aste honetan jakingo dute zein izango duten aurkari.

Irene Perez gipuzkoara begira

Soraluzeko gimnasta lehen aldiz senior A mailan ari da lehiatzen, gipuzkoako txapelketarako txartelaren bila. Lehen sailkapen-proba Azkoitian izan zen eta uztaiarekin egindako lanari esker lortu zuen 7. postua. Hurrengo sailkapen-proba Bergaran izango da apirilaren 30ean eta bertan "mazaekin" jardungo du.



"Zapatu arratsalderako plan ederra da"

Bittor Nuñez, 29 urte

Hiru Txirloko jokalaria

Zenbat urte daramazu jokatzen?

14 urte.

Nola hasi zinen?

Nire anaien eta lehengusuaren bitartez.

Zerk erakartzen zaitu gehien?

Sortzen den giroak eta adiskidetasunak.

Zeintzuk osatzen duzue Soraluzeko taldea?

Arritxak, Mendotzek, Korta "txiki"k eta nik, herrian denean bertako askok ere jokatzen dute.

Nola jokatzen da?

Hiru jaurtiketa daude eta gehitu egiten dira botatako txirloak. Banaka, bikoteka eta taldekako sariak daude jardunaldi bakoitzean eta txapelketa amaitzean.

Zenbat jardunaldi guztira?

10-12. Soraluzen, Elgoibarren, Bergaran, Azpeitian, Azkoitian, Elgetan, Eibarren eta Lasturren.

Noiz hasten da txapelketa?

Martxoa erdialdean.



Bittor Nuñez Ezoizko bolatokian.

Federatzeko zer egin behar da?

Herriko taldeko pertsona bati esan eta 5 euro ordaindu behar dira.

Nork jokatu dezake?

Bertan dagoen edozeinek jokatu dezake. Federatuta bazaude txapelketarako puntuagarria izango da egindakoa, bestela eguneko saria irabazi dezakezu soilik.

Soraluzeko txapeldunik izan al da?

Nire anaia "Txiki"k irabazi zuen 2014an

Gazteek jokatzen dute?

Soraluzen gutxi, inguruetako herrietan badago zaletasuna.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Jende gaztea sartzen ez bada galtzeko arriskua dago. Nik gazteak animatzen ditut jokatzerara eta zerbeza bat hartuz ondo pasatzera. Lagun artean zapatu arratsalderako plan ederra da-eta.

Irene Alvarezek gogor ekin dio denboraldiari

Soraluzeko eskalatzailak 2016ko boulder txapelketako bi jardunaldi jokatu ditu eta bietan podiumera igotzea lortu du. Gasteizko XIII. boulder edizioan garaipena lortu zuen eta VII. Pio Baroja boulder txapelketan, aldiz, bigarrena izan zen. Hurrengo proba Amurrión jokatuko du martxoaren 5ean.






EDURTZA
taberna

Ogitarteak, razioak, hamburgerak, pintxoak eta pizzak

Potata tortiak egiten dira onkarguz

Santa Ana, 18
Tel. 943.75.1218



Elizepe
Hartz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ilustrotza
- Implantak

ZINHAIMENO BERRIKUZKETA
FINANTZAKETA ZURE NEKERIA
KONPROBESORIK GABEKO ALIBERKONTUA

MUTUALIA, PAZI (haurren arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elburua 3 beheko, Soraluze

Monsserratek urrezko domina eskuratu du Andoainen



Jaialdiko irudiko bat.

Abigail Monserratek urrezko domina jaso zuen joan zen domekan Andoainen egin zen XI. Piano Jaialdian. Epaimahaiaren aipamen berezia ere jaso zuen, eta, hargatik, jaialdiaren itxiera-kontzertu berezian parte hartzeko aukera izan zuen. Han Chopinen 4. preludioa interpretatu zuen.

Jaialdi entzutetsua

Andoaingo Piano Jaialdia oso ekimen entzutetsua da eta bertan parte hartzen dute 18 urtez azpiko Euskal Herriko 800 pianojolek baino gehiagok. Horietatik hogeik bakarrik eskuratu dute aipamen berezia. Abigail Monserrate Lozanok hamasei urte ditu eta zortzi inguru daramatza Soraluzeko musika eskolan. Aurretik ere sari ugari lortu izan ditu Andoainen. Iaz ere urrezko domina eta aipamena jaso zituen.

Film laburrei eskainitako eguna



Aurtengo edizioko kartela.

Laburbira zirkuitoaren barruan, iaz ekointzitateko euskarazko 8 film labur proiektatuko dira martxoaren 10ean (eguna), gaueko 21:00etan. Emanaldia antzokian egingo da eta hauek dira ikusi hal izango ditugun filmak: Zea bingo –Ane Urkiola–; Erreplika –Iñigo Gaiton–; Jorrai –Uda films–; Fishura –Yago Mateo–; Bere bizitzetako bat –Aitor Gametxo–; Brunilda –Eritz Alberdi–; Hartz txiki –The Arlotek–; Semeak –Iker Azkoitia–.

“Ostegunetako pelikulak”

Bi film ezagun proiektatuko dira martxoan Ostegunetako pelikulak zikloaren barruan. Martxoaren 3an *Jai Alai Blues* (Gorka Bilbao, 2015) eta martxoaren 17an *Truman* (Cesc Gay, 2015).

SkizopozikS errezitaldi hitzperimentala

Markos Gimeno Vesgak, “Markus” ermurrak, Skizopozik izeneko monologoa aurkeztuko du martxoaren 15ean, martitzenean, Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan. 40 minutuko ikuskizun berezia izango da, hitz-joko bereziekin osatutakoa, euskaraz eta gaztelaniaz “modu homofoniko, eskizoide, eta dibertigarrian jolasten duten ‘poemez’osatur”, hizkuntzarekin eta hitzen esanahiarekin jolas egiten duena. Markosek azken urteotan euskarazko palindromoak (testu kapikuak) sortu eta plazaratu ditu.

SkizopozikS

Comedia experimental by



Bertako zuhaitzen argazki-lehiaketa

Alkarrekineko jasangarritasun taldeak bertako zuhaitzen argazki-lehiaketa antolatu du martxoaren 21ean ospatuko den Basoen Nazioarteko Eguna-ren harira. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkezteko aukera izango du. Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar dira, ingurumena.soraluzekoudala@gmail.com helbidera bidalita. Argazkiak aurkezteko epea zabalik dago jada eta entregatzeko azken eguna martxoaren 4a izango da. Jasotako argazkien artean 34 argazki aukeratuko dituzte eta horiekin erakusketa antolatuko dute martxoaren 17tik 22ra. Saria 50 eta 25 eurokoak izango dira 16 urtez azpiko mailan, eta 150 eta 75 eurokoak 16 urtetik gorakoenean.



Zorion agurrak




Amaia Agirre
Urtarrilaren 22an, 41 urte.
Zorionak wapa!
Anaiak eta etxekuen partez.



Unai Calles
Otsailaren 7an, 7 urte.
Zorionak jator hori!
Tio eta tian partez.



Enara Agirre
Urtarrilaren 10ean, 33 urte.
Zorionak polittiori!
Anaiak eta etxekuak.



Sinfo Muñoz Preciados
Otsailaren 19an 71 urte.
Zorionak ama!
Asko gura zaittugu zure familia guztiak.



Marina Gil Azcona
Otsailaren 13an, 13 urte.
Zorionak polit hori! Asko gura zaittugu zure familia guztiak.



Rosi Dueñas eta Maialen Alberdi
Otsailak 27 eta 21ean, 50 eta 20 urte
Zorionak eta patxo haundi bana!
Etxekuen partez.



Marta Ayora Plata
Otsailaren 15ean, 25 urte.
Zorionak preioxoa!
Primeran ospatu zure eguna.
Laster gara etxekuak zurekin.



Nora Larreategi
Otsailak 21an, 6 urte.
Zorionak Printzesa!!!
Muxu potolo bat etxeko guztion partez!!!



Borja Aristi
Otsailak 29xan, 36 urte.
Aurten bai, ZORIONAK!!!
Muxu haundi bat, danon partez.



Josu Ledo
Otsailaren 23an, 10 urte.
Zorionak etxekoen partez!



Markel Larrañaga
Otsailaren 18an, urtebete.
Zorionak potxolo! Segi beti bezain alai. Patxo haundi bat aitaxo eta amatxon partez.




Oier eta Unax Fulgencio Uzin
Otsailak 21ean 6 urte eta marboak 1ean 3 urte
Zorionak bikote!
Muxu asko familia guztian partez!



Mikel Layza
Otsailaren 17an, 5 urte.
Zorionak Mikeltxo!
Muxu handi bat familia guztiaren partez.




Josune Saban
Otsailaren 24ean, 17 urte.
Zorionak etxekoen partez!



Nerea Rascon Jato
Otsailaren 22an, 35 urte.
Maite zaitugu!
Zure lagunak eta izeko Begoña Diaz.



Janire Muñoz Pellitero
Marboaren 8an, 8 urte.
Zorionak umetxo! Asko maite zaitugu! Etxekoen partez.



Ione eta Miren Blanco Mendizabal
Zorionak! Asko maite zaitxuztegu. Ama eta Aitzen partez.




Urrategi Gantxegi
Otsailaren 26an, 55 urte.
Jarraitu holako amama edarra izaten!
Mila kilo zorion familixakuen eta bereziki Saran partez!

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak Pil-pileanen:

- Whatsapp **605706086** zenbakira.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Webguneko **www.plaentxia.eu/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Lokalera ekarri: 10.30etik 13:00etara bitartean.

Taiotakoak eta hildakoak



Julen Tello Garitagoitia



Jose Luis Mendizabal Oregi
Jacinto Fernandez Armesto

KLB6
Kalebarran 6
943 57 74 26
Mutlen eta nesken moda guztia
KLB6
www.Bara-Jantibidea

Pepe Jeans
BLEND
TREZ
MUNICH
MAISON SCOTCH
LA FEMME HELON WARD
VERO MODA
new balance

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

1933an "erailketa lotsagarri bat Ezosi baleran"

1933ko urriaren 17an Dris Dras izeneko berriemaileak idatzitako Soraluzeko kronika argitaratu zuen Euzkadi egunkariak. Honako albistea jaso zuen: egun batzuk lehenago "Ezosi baleran neska gaste bat norbaitek hilda utzi dabela". Jone Oregi, Iribebaserriko 12 urteko neskatilaz hildakoa; hiltzailea, Arteaga baserriko morroia, Jon Zuazo, 18 urteko hernaniarra. Kronikak dioenez, mutila gezurretan aritu zen bere burua zuritzeko, hilketa kanpotar batek aitzoarekin gauzatu zuela esanez; baina autopsiak neskatila buruan kolpe bat jota hil zela erakutsi zuen eta argitu zen erruduna nor zen. Xehetasun ugari eman ostean, honela bukatzen da kronika: "Heriotzaren zergatia? Baita ere garbi dago: aragizkeriko griñak eraginda. Beraz, gai lizuna, obe xildu. Sendikoei geure atsekabea."



Iturria: armiarma.eus



JOSE LUIS MENDIZABAL "AZALIA"
OTSAILAREN 14AN HIL ZEN
67 URTE ZITUELA

*"Azalia gauzkazu gaur kantuan zuri,
aitortu nahian eman diguzuna guri,
zure gizatasuna ta umore fin hori,
banatu dizkiguzu urtero opari.
Agur eta ohore ikazkin jaunari."*



**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalki eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.



Murrizte kanpaina

Poltsa berrerabilgarria edo tupperra erabiltzen dutenen artean hilero 25€ko bi erosketa sari zozketatuko dira



SORRALUZKO
UDALA



Irabazleak:



Begoña Aguirre



Eulateria Ordás



Sorraluzeko Kooperatiba Elkartea

943 75 13 45

Bertako
produktuak



MENDIZABAL
okindegia

Egurrezko labean
egindako ogia

Kalebarren, 10
Tel. 943 75 20 91
Baltegiata, 6
Tel. 943 75 13 99

TXURRUKA JATETXEA

www.txurruka.com

943 75 15 81



Eguna: Martxoaren 12, zapatua

Tokia: Zubi Nagusia **Ordua:** 19:30ak

Egitaraua: Txalapartariak eta kantariak (abesbatzako kideek) musika ikuskizuna eskainiko dute kriseiluak aireratu aurretik

Oharra: Kriseiluak eskuratu ahal izango dira barixaku iluntzean Kontzejupean eta Iratxo goxodendan. Eguraldi txarra suertatuz gero, ekitaldia beste egun batera atzeratuko da



DES KON TUAK

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskaintzen dituzte hilerero. Eskaintza baliagarria **otsailaren 26etik martxoaren 12ra** arte.

INTXIXU TABERNA

Zuritoa eta azeitunak edo patatak



2€

Lehen 2,5€

Deskontua %20

Izena: _____

Tel.: _____

DENA 100

Disney aterkiak (2-3 urte)



4,5€

Lehen 5€

Deskontua %10

Izena: _____

Tel.: _____

CRiado FRUTADENDA

Hegaluze-mendreska eta Aginagako piperminak



5,7€

Lehen 7,7€

Deskontua %26

Izena: _____

Tel.: _____

TRISKEL HERBORISTERIXIA

Erregina-jelea propoleoa, ekinazea, pinua, eukalipto, ezkaia, bitamina eta mineralekin



14,15€

Lehen 17,7€

Deskontua %20

Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilerero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azken zozketaren irabazlea: Berna de Castro

NIK,
HERRIAN

